# artikulu nabarmenak
# artículos destacados

Gazteen Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Juventud

## abuztua




**Rafael Merino… et al. Itinerarios formativos y laborales de los jóvenes graduados en formación profesional: Sobre algunos prejuicios en la formación profesional.**

Lanbide heziketa, bai formala zein ez- formala, azken urteetan Europan zehar arreta berezia jasotzen ari da. Baina pairatzen ditu aurreiritzi negatiboak. Askok lanbide heziketaren aldeko apustua egiten dute joera positiboak kontrajartzen. Datu ETEFILen arabera, INEk 2005ean egindako lan-munduan txertatzearen inkesta, ikertzaileek aurreiritziak baieztatzen diren ala ez aztertzen dute, gazteen lan-merkaturatzea eta beraien lanbide heziketako prestakuntza aztertzen

***Sociología del trabajo,*** **72. zk., 2011ko udaberria, 137-155 or.**




**Storen, Liv Anne. Limited Access to Aprenticeships, "State Dependence" or Low Qualifications.**

Artikulu honek gaitasun txikia edo ertain-txikiko maila duten gazteen eskolatik lan-merkaturako trantsizioa aztertzen du. Goi mailako ikasketak jarraitu duten ikasleak baztertzen dira. Gazte guztiek jarraitu dute Norvegiako bigarren hezkuntza baina askok ez dute osatu beren eskolatze prozesua. Mendebaldeko jatorri ez daukatenak eta Norvegiaren etniako gazteen egoera konparatzen da. Gutxiengo etnikoaren gazteek gehiengoarekin konparatuta kontratatuak izateko aukera gutxiago daukate, nahiz eta gaitasun eta ikasketa maila antzekoa izan. Ikastaldi esperientziaren eragin positiboa, espero zitekeena baino txikiagoa izan zen.

***Young: Nordic Journal of Youth Research*****, 19. lib., 2. zk., 2011eko maiatza, 129-158 or.**




**Schubotz, Dirk; O'Hara, Malachai Knutsen. A Shared Future? Exclusion, Stigmatization and Mental Health of Same-Sex-Attracted young People.**

Ipar Irlandan, integrazio sozio-erlijiosoak eta etnia nahasketak agenda politikoan pisu handia duten arren, bake prozesuak orain arte huts egin du gazte ahulenen beharrei aurre egiteko, adibidez, bere burua gay, lesbiana edo bisexualtzat hartzen dutenak. Ipar Irlandako iritzi publikoak sexu bereko erakargarritasuna duten pertsonen kontrako girokoa izaten jarraitzen du. Urteroko Young Life and Times (YLT) inkestaren arabera, ARCAk 16 urtekoen artean egiten duen inkesta, sexu bereko erakargarritasuna sentitzen dutenek esperientzia okerragoak adierazten dituzte hainbat sektoreetan. Besteak beste, hezkuntza sektorean (adibidez: sexu-hezkuntza edo eskola-jazarpena), osasun mental txarragoa pairatzen dute edo Ipar Irlandatik alde egingo dutela berriro ez itzultzeko esateko joera daukate.

***Youth & Society*****, 43. lib., 2. zk., 2011ko ekaina, p. 488-508**